



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Bertsolarien izeberg-a. Zaintzaren
begiradatik bertsolarien bizitzen
azterketa**

Maialen Akizu

239-246 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.30>



Bertsolarien izeberg-a. **Zaintzaren begiradatik bertsolarien bizitzen azterketa**

Akizu, M.

Egileen ikerketa-gunea: soziologia, kultura, generoa

Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila, AFIT Antropologia Feminista Ikerketa Taldea, Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV

maialen.akizu@ehu.eus

Laburpena

Kongresuan aurkeztuko dudan ikerketak bertsolarien bizitzak zaintzaren ekonomiatik aztertzen ditu. Bertsolaritzak euskal tradizioan ibilbide luzea izan du eta azken urteetan generoaren perspektiban pauso esanguratsuak ematen ari den kultur esparrua da. Halaber, zaintzaren begiradak bizitzen antolaketan hausnarketa zabaldu eskaintzen du eta gizartearen beharizan baten aldarri bihurtu da. Bizitza errelatoen teknikaren bidez egindako elkarrizketetan ondorioztatzen da bertsolariek gatazkak izan dituztela euren bizitza pertsonala eta bertsolariarena uztartzeko eta horretan bereziki eragin diela bakoitzaren kapital sinbolikoak eta familia eraketak. Horregatik, zaintza lanak egiteko garatutako estrategiak azaleratuko ditugu eta kultur-sortzaileen bizitzak bizigarri egiteko gakoak plazaratu.

Hitz gakoak: euskal sormen kulturala, bertsolaritza, zaintzaren ekonomia, generoa

Abstract

The study that I will present at this congress, analyzes the lives of bertsolaris from the care economy. Bertsolarismo has had a long history in the Basque tradition, and in recent years it has been making significant strides in the gender perspective. Likewise, the look of care opens a reflection on the organizations of lives and has become a claim of a social need. In the interviews carried out using the life stories technique, it is deduced that bertsolaris have had conflicts to reconcile their personal life with activity of bertsolari, and that has been especially influenced by the symbolic capital and the family formation of each one. For this reason, we want to investigate the strategies developed to carry out care tasks and the keys to make the lives of cultural creators livable.

Keywords: Basque cultural creation, bertsolarism, care economy, gender

1. Sarrera eta motibazioa (Formatu orokorra eta bibliografia)

“Militante” hitza ahoz-gora nekez esan izan dut, baina zerbaiten *militante* sentitu banaiz (euskal) kulturaren militante izan da. Bizitzaren ibilian izan ditudan kalapiten hotsik ez nuen topatu ordea unibertsitatean. *Kultura* pasioa, ametsak, irudimena bezalako hitzekin lotzen dugu aise, baina nolakoa da Maialen Lujanbioren astearte bat? Nola egiten du astebururo hara eta hona ibiltzeko? Zerekin joaten da oholtzara, nora itzultzen da? Badirudi, idilikotasun oro itsusten duen hitz bat dela *ekonomia*. Horregatik, kultura eta ekonomiaren arteko harremana dugu lan honetan helduleku. Ekonomia perspektiba soziologikoetatik aztertuko dugu, besteak beste, botere-harremanetan, genero ezberdinkerietan, kapital sinbolikoan arreta jarritz, hori baita ekonomia feministaren ekarpen nagusietako bat: ekonomia ez da termino kuantitatiboetara edo Barne Produktu Gordinera soilik mugatzen. Ikerketaren lehen atalean gaiaren marko teorikoa aurkeztuko dugu, eta azterketarako beharrezko terminoak definitu helburuak zehaztearekin batera. Ondoren, elkarrizketen bidez produzituko diskurtsoaren analisia egingo dugu eta azterketaren ondorioekin amaitu.

Unibertsitatean kultur-sorkuntzak eta zaintzaren ekonomiak duten leku gutxia ere bada proiektu hau egiteko motibazio, bai eta Covid-aren testuinguruan *kultura zaindu* leloak izan duen hedapena ere. Gaiaren gaurkotasuna baina historikotasuna medio, bertsolarien bizitzen azterketara mugatu dugu markoa.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

“Culture is one of the two or three most complicates word in the English language”. Hala zioen Raymond Williamsek (1977) eta ingeleseko hizkuntzan ez ezik, gainerako hizkuntzetan ere kontzeptu konplikatua izaten jarraitzen du kulturak.

Kulturaren luze-zabalak adierazpen lekutik (Vich, 2002) edo ezagutza kokatutik (Hawaray, 1995) aztertu ditut lan honetan. Kulturak definizio asko izan ditzake eta baina hemen kultura sistema gisa, “zentzuen pautak” (Geertz, 1992) moduan, aztertuko dugu, kulturgintzaz arituko gara alegia, eta kulturgintzaren barruan, bertsolaritzaz. Izan ere, “bertsolaritza, euskal gizartearen eta kulturaren ispilu gisa erabil dezakegu, kulturgintza erreproduzitzeko baina baita berritzeko ere gune aparta da” (Esteban, 2019). Azken urteetan bertsolaritza paradigma desberdinetatik aztertu da (Garzia, 2001, 2012; Hernández 2011, 2014; Labaka, 2018; Zubiri et al., 2018; Agirre, 2019; Artetxe eta Labaka, 2019; Artetxe, 2020), baina interesgarri bezain beharrezkoa iruditzen zaigu kulturgintzaren esparrura eta kulturgintzatik, azken urteetan horren presente dugun zaintzaren perspektibatik jorratzea.

XX. mendearen erdialdetik aurrera, feminismoa aldaketa sozialerako erreferente kontsolidatu zen eta akademian leku egiten joan, jakintza sortzeko bestelako tresnak bilatuz eta desberdintasun sozialak errotik eraldatzeko proposamenak eraikiz (Castañeda, 2019). Epistemologia feministari esker ikusezinak ziren errealitateak eta espazioak mahai-gaineratu dira eta haien konplexutasuna aitortzearekin batera, botere harremanen ulerkerak zabaltzen da (Biglia eta Bonet, 2012). Ikerketa feministaren ekarpen nabarmenenetakoa emakumeetatik eta emakumeentzat ikertzea izan da (Harding, 1998) baina genero baldintzen transformazioa, diziplinarteko aldaketarekin ulertu behar dugu, aldaketa sozialaren teoria baten taupadekin (Del Valle, 2000). Marko honetan, feminismoaren bilakaeran laugarren olatuaz hitz egiten da (Chamberlain, 2017) eta bi inflexio puntuetako bat zaintzaren inguruko hausnarketa eta debata da.

Euskaraz *zaintza* kontzeptua erabiltzen dugu ingelesezko *care* terminoaren baliokide: *care* nozioaren bidez, arretaren eta kezka dimentsio ez-medikoa identifikatu eta esplizitu egiten da eta zaintzari berari balio propio bat ematen zaio lan, etika eta proiektu politiko gisa ulertuz (Molinier eta Legarreta, 2016). Zaintzaren inguruko ikerketek autonomia totalaren modeloari kritika zuzena egiten diote eta “leku pribilegiatu bat dira genero desberdintasunak aztertzeko” (Pérez de Orozco, 2014). Izeberg-a ur-azpikoa izotzak sostengatzen duen lez, sistema sozioekonomikoa esfera feminizatu eta ikusezinen gainean datza. Zaintzaren etikatik (Tronto, 2005) zaintzaren “plus afektibora” (Carrasco, 2017) ekarpen ezberdinak egin dira, baina orokorrean hiru dimentsio hauetan banatu dezakegu zaintzaren eremua analitikoki: dimentsio materiala (zaintza lana da, energia, denbora...), subjektiboa (zaintza etika da, moralak, erlazonala...) eta politikoa (zaintza proposamen politiko bat da) (Molinier eta Legarreta, 2016).

Kultura eta zaintza parez-pare jartzeko arrazoiak, gaiaren kezka, gaurkotasuna eta potentzialaz gain, bi kontzeptuen arteko antzekotasunak izan dira: biak daude konnotazio positiboekin lotuak, maitasuna kasu (Nussbaum, 2006), biak dituzte denbora arrazionalizatuan kabitzeke zailtasunak (Legarreta, 2008, 2017) zein biek dituzte tentsioak soldatapeko lanaren logikarekin. Eremu produktiboa eta erreproduktiboa banatzea proiektu iraultzaile oren oinarriko oztopoa da (Federici, 2008) eta horregatik, eraldaketa sozialerako agente gisa kokatzen dugun kulturgintza, zaintzaren ekonomiatik aztertu dugu. Emakume langileen etxeko zein etxetik kanpoko lan kargaz aritzeko *doppia presenza* (presentzia bikoitza) terminoa proposatu zuten laurogeiko hamarkadako soziologo italiarrek, eta hirugarren presentzia bat gehitzen dio Marina Sagastizabalek emakumeen parte-hartze soziopolitikoari erreferentzia egiteko, “hiruki gatazkatsua” terminoa mahai-gaineratuz (Sagastizabal, 2020). Parte-hartze soziopolitikoaren esparrua lan honetan bertsolaritzan definitzen da.

Gizartearen laginetako bat dugu bertsolaritza, eta halabeharrez, gizarteak bezalaxe, genero-sistema du antolaketaren erdigunean (Hernández, 2016). 1993ko Bertso Egunean, Iratxe Ibarrek, Estitxu Arozenak eta Maialen Lujanbiok halaxe kantatu zuten: *ni ziur nago inoiz erakutsiko dugula / bertsolaritzak barrabilekin zerikusirik ez dula*. Hamar urte pasako dira 2003an lehenengoz Getariko Askizu auzoan (Gipuzkoa) andre bertsolarien topaketak antolatzerako.

Ordutik hainbat hausnarketa eta itu jarri dira “bertsolaritza feminismoarentzat espazio eta laborategi esanguratsua bihurtu da, bai kulturgintzan duen lekuagatik baita emakume bertsolarien berariazko sormen eta ekarpenagatik ere” (Esteban, 2019).

Bertsolaritza egituratzaile nagusia 1985ean sortutako Bertsozale Elkarteak izan da. “Antolatzeko bide berezi bat” zuen helburu Elkarteak, ekonomiko autoerregulatzen den jardun artistiko gisa funtzionatzea (Sarasua, 1999). Mende Erdiko ibilbidean helburu eta tresna berriak sortzen joan dira, eta azterketa honen helburuei jarraiki, azpimarragarria da bertsolaritzaren profesionalizazioa egikaritzeko 2003an sortutako Lanku Kultur enpresa, “herri mugimenduaren antolaketa errespetatuz, bertsolaritza indartzea helburu zuena”¹. XV. mendean plazaz plaza kantuan aritzen ziren profazadoreetatik, ondorengo baserri eta sagardo girotik, kultur enpresara.

Frankfurteko Eskolari atxikitzen zaio kultur enpresa edo hobeto esanda, *industria kulturalaren* kontzeptua. Kulturaren merkantilizazioa salatu nahi zuten kontzeptu honekin, kultur-produktuen erreproduzio teknikoak zekarren arriskua (Benjamin, 1971). Garrantzitsua iruditzen zaigu euskal kulturgintzaren eta zaintzaren auzi materialistari heltzea, askotan, aurkakotasunean aurkezten zaizkigulako, eta egungo logikak ulertzen laguntzen dutela uste dugulako.

Beraz, aipatu bezala, aurkezten dugun ikerketaren helburu orokorra kultur sorkuntza, kasu honetan bertsolaritza, zaintzaren ekonomiatik aztertzea da, bertsolarien bizipen, narratiba eta esperientziak ikertuz, bizitza sostengatzen duten bizi-esperientzietan arreta jarritz eta genero ezberdintasunetan zein kultur-sorkuntza ogibide gisa izan eta ez izatearen arteko tentsioan sakonduz.

3. Ikerketaren muina

Bertsolaritza, bertsolarien bizipenetatik aztertuko dugu, bizitza kontakizunen teknika erabiliz bertsolarien diskurtso eta bizipenak ezagutzeko. Perspektiba etnosozilogikoan kokatzen da teknika hau, etnografiaren tradizio behatzailea baztertu gabe, helburuen erreferentzia gisa arazo soziologikoak baititu (Bertaux, 2005). *Kontatu* aditza ere garrantzitsua da, subjektuaren produkzio diskurtsiboak forma narratiboa hartzen duela esan nahi baitu, eta, gainera, bertsolariak ere nolabait “kotalariak” euren jardunean, euren ahotsetik rol eta paper sozial ezberdinetatik kantatzen baitute, norbanakoaren diskurtsoa kolektiboago bihurtuz. Egoera sozial antzerakoa bizi izan dutenen narratiben azterketak, bakoitzaren esperientzietatik sortutako jakintzan fokua jartzea dakar, baina elkarrekin harremanetan egotea, bakoitzaren berezitasunak baino ezaugarri sozial kolektiboen errepresentazio xede izanda.

Helburuak eta ikerketaren mugak aurreikusita, lagina definitzeko hiru aldagai finkatu ditugu: bizitza-zikloa (30-50 urte bitarteko eta bertsotan hamabost urte baino gehiago diharduten bertsolariak aukeratuz, dimensio tenporalaren bilakaera aztertzea interesatzen zaigulako eta adin talde hau delako lan-merkatuaren aktibo nagusia), sexu-generoa (emakume eta gizon kategorietan operazionalizatuta) eta ogibidea (kultur sorkuntza ogibide duten eta ez dutenen bertsolariak bereiziz).

Elkarrizketak ordubete inguruak izan dira eta elkarrizketatuei euren bizi esperientziaren inguruan galdetu diegu sei bloketan bereizitako gidoiari jarraituz. Elkarrizketatuei fikziozko izenak jarri dizkiegu euren anonimotasuna bermatzeko. Bestetik, euren hitzak eta esamoldeak ahalik berdin mantentzea hobetsi dugu, elkarrizketaren analisirik zintzoena egiteko asmoz.

Elkarrizketatuei euren bertso-ibilbidearen hasieraz galdetuta, bertso-eskoletako giroa gogoratzen dute. Bertso-eskoletan “norbere pentsamenduen eraikuntza ere besteekin egiten da eta intimoa bezainbat da kolektiboa norbere pentsaeren eraikitze prozesua” (Artetxe, 2020). Bertsolaria talde-egituratuen bidez sozializatzen da bertsolaritzan eta kolektiboaren presentzia, trebatzeko aukera egotea zein testuinguru soziokultural batean kokatzea gako bereizgarritzat jotzen dira (Retolaza, 2019). Bertsolarientzat, bertsolaritza euren identitatearen parte da, eta bertsogintzaren parte sentitzen dira baina generoen artean ezberdin sentitzen da parte-hartze

¹ www.lanku.eus

soziopolitiko hau (Arneil, 2006): gizezkoek gehiago azpimarratzen dute taldeak ematen dien kapital soziala; aldiz, emakumeek, hau ukatu gabe, beste zerbaiten parte izanez bizi dute kapital sozial hori:

Bertsotan egitea niretzat oso egiteko garrantzitsua izan da hasteko nereko, plazien errespetuekiko, jasotzen nebazan maila diferentetan, izen nire burue espresatzeko adierazpide bat izatetik, izen jende baten estimue ta arretie izetetik, izen diru ekonomiko bat izatetik... (Mikel, sorkuntza ogibide)

Nahiko bokazionala da niretzako sormena eta hezkuntza, (...) bertsoara joaten nintzanean, maitatua sentitzen nintzen, ni izan nintekeen, (...) Gertatu zait negarrez joatea bertso-saiora eta irribarrez bueltatzea, (...). Eta izan da ba zaintza modu bat, bai hizkuntzarena, bai gazte jendearena... (Andrea, sorkuntza ez-ogibide)

Bertso-eskolan, pribatuan, trebatzen ari den bertsolariak, publikoa, plaza du begitan. “Plaza gizonak ez du jende aurrean gutxitu behar, are, jendearen eragin positiboa hartzeko gai izan behar da” (Amuriza, 1981). Plazetan *plazena*, ordea, txapelketa da, eta Txapelketa Nagusia da “bertsolaritzaren *eferbeszentzia* une bat” (Aierdi et al., 2007). Txapelketak erritual puntualak dira (Larrañaga, 2013) baina prozesu luze bat dakarte, prestakuntza, gogoeta, bilera eta bestelakoak eskatzen baitute. Agenda sozialak norbanakoaren erritmoa aldatzen du, baina gorputzaren erritmoak banaezinak dira gizabanakoaren ongizetatik eta eguneroko bizitzaren erritmoetatik (Adam, 1995). Denbora libre gehiago izateak abantailak dakartza lan-arloan, arlo sozialean edo politikoan aritzeko (Sagastizabal, 2019):

Ba sei hilabete prestatzen, gehi sei hilabete horren bueltan, gehi sei hilabete gero horrek uzten dizun ajeakin, gero mundu guztia hortaz hizketan, modu ez kreatibo baten, triatletak bagina bezela, eta enindun erakartzen horrek (Izaro, sorkuntza ogibide).

Plazari eskeintzen diozunean beste norbaiti kentzen diozu. (...). Karo ba proiektu konpartitu bat duzunean ba askotan horri kendu behar diozu. (...) Niretzat bigarren finala zen eta beno, finalera iritsi edo ez, baina espektatibak txapelketa on bat egiteko, eta karo, hori jartzen duzu mahaian eta hori, gehi berrogei orduko lana, gehi bi ume txiki etxean, gehi... Pentsa, pentsa. Ba loari kentzen, loari kentzen loari kentzen. Nik azkenengo sei hilabeteak lau orduko bataz-bestekoa ez nuen egingo. Hortxe, tope. Egurra (Pello, sorkuntza ez-ogibide).

Kulturaren eta ekonomiaren arteko tentsioak aipatzen dira bertsolarien kontakizunetan. Bertsolaritzaren parekidetasuna garatzeko zailtasunik handiena merkatuaren esparru eta baldintzapean funtzionatzea dela dio Mari Luz Estebanek (Esteban, 2019). Bertsolariek euren jardunaren balio ekonomikoa balorean jartzen dute eta ordainsariaren paradoxa azaleratu: langileen ordainsaria denborarekin harremanetan dagoen kategoria da eta, bertsolarien kasuan, bertsoan ekintza gauzatzen den denbora laburra da. Aldiz, ordain-sari hori gutxieneko soldatatik urrun dago oso, Mikelek adierazten duen moduan:

Ni langile famili batekoa naz, ni bertsotan bastante eitten nebilenien nire aitte langabezixan egon zan urte bittin, eta ni bertso saio bakoitzien 20.000 pezeta kobratzen nebazan. Konziente nintzen zer ziren 20.000 poltsikuen nire aitte telefono dei baten zai zegon bitartean (Mikel, sorkuntza ogibide).

Eta bizitza laborala, bizitza domestiko-familiarrarekin uztartu behar da. Elkarrizketatuak guraso izatea deliberatu dugu. Eremu domestiko-familiarrean gizezkoen ausentziak legitimitate sozial handia du oraindik (Torns, 2005) eta bertsolari gizezkoen diskurtsoetan agerikoa da hori. Ez da oharkabean pasatako zerbait, aitortzen dute “gauza asko galdu zituztela” (Mikel, sorkuntza ogibide) baina

bertsolaritzaren bidean apenas salbuespenik eginda jarraitu zuten aurrera. Gainera, bertsolari-tza lan-
produktiboaren ordutegitik kanpo kokatzeak, bestelako agenda bati erantzun beharra dakar.

Emakume bertsolariak, aldiz, haurdunaldia gelditze eta barneratze garai gisa gogoratzen dute. Diskurtso ezberdinak topatu ditugu ordea, eta iruditzen zaigu, bertsolari ama gehiago egon ahala, faktoreak eta bideak identifikatzen lagunduko duela. Alabaina, egiturazko zailtasunak azpimarragarriak dira: ez dago gurasotasun baimenik kultur-gintzan, ez dago langileen hitzarmenik, bertso-saioa joateko ezina baduzu ez dago babes legalik... Sostengu instituzional faltak, bestelako sare eta laguntzak bilatzera bideratu ditu bertsolari emakumeak. Estrategia ezberdinak garatu dituzte bizitzaren etapa ezberdinetan: lagunei eskatu diete bertso-saioa zutenen haurrak zaintzeko, trukeak egin dituzte bizilagunekin, bertso-saioetara haurrekin joan eta saioan zehar bularra eman... Gurasoen laguntzaren ezinbestekotasuna ere emakume elkarrizketatu orok azpimarratu du gizonezkoek ez bezala:

Bi urteko haurra neukan, eta bono askotan gauez ziren, berandu heltzen nintzen, eta intentsitate handikoa... (...) batez ere gurasoen babesa. Amaren partetik zegoen “benga, segi, egin zazu, geratuko gara hurrekin”... bai kriston babesa (Andrea, sorkuntza ez-ogibide).

Neukan baita bai bikotearen eta bai gurasoen babes guztia, ustet hori ere badela denok ez daukagun zerbait, nire inguruan inportantetzat jotzen da sorkuntza, gurasoek beti esan izan didate “moldatuko gea, zuk hartu” (Izaro, sorkuntza ogibide).

Bertsolari guztiek, bertsolari-tzaz kanpo, bestelako jardunak egin izan dituzte. *Lanaren* definizioaz galdetu diegu, definizio hau historiko eta dialektikoa dela uste dugulako eta sorkuntzatik bizi direnen eta ez direnen arteko ezberdintasunetan aipatzekoa da, sorkuntza ogibide ez dutenek, sorkuntzatik bizitzeak ekonomiarekin menpekotasuna edukitzea dakarrela esaten dutela, eta bestelako enplegu batek, menpekotasun hori saihesten duela. Horrela adierazi digu Pellok:

Nik ez det nahi izan (sorkuntzatik bizi). Bere garaian izan genuen eztabaida dexente gure bertso-eskolan (...) neretzako bertso-jardunetik, sormenetik bizitzeak suposatzen du zure lanari etekin mota bat atera behar diozula aldiro, eta hilabete bukaerara ere iritsi behar da, suposatzen du plaza kopuru bat aseguratu behar duzula suposatzen du (...) kezkatzen nau hurrengo belaunaldiei sor dakieken ilusio faltsuak (Pello, sorkuntza ez-ogibide).

Diskurtso honetan, batetik ekonomia moralizatzen da eta konnotazio negatiboa du, bere menpeko bihurtu zaitzake. Bertsolari-tzak bi esparrutatik bereizi behar du bere burua: bai ekonomiatik, eta baita menpekotasunetik ere. Gainera, bertsolari-tzaren profesionalizazioak geroko belaunaldietan ilusio faltsuak eragin ditzakela aipatzen da gizonezkoen diskurtsoetan Kultur-sorkuntza ogibide ez dutenek kultur-sorkuntza lanbide bihurtzearekin ez datoz bat orokorrean.

Aldiz, kultur sorkuntza ogibide dutenen artean iritzi ezberdinak topatu ditugu. Badira, euskal kultur sortzaileen “prekarietate bikoitza” aipatzen dutenak: prekario baitira kultur-gintza dabiltzalako, eta kultur-gintzan, hizkuntza gutxitu batean ari direlako. Baina badira, euren bizi esperientzia eta erritmoak bizitza bestelako logika batetik ulertzeko aukera ematen duela azpimarratzen dutenak. Alabaina, kultur-gintzaren eta bertsolari-tzaren zaurgarritasuna agerian jarri dute elkarrizketatuek:

Baldin badaukazu norbait gaixo, edo zaharren bat inguruan edo- ba hori nola uztartzen da? Aurretiazko modu batzuk eskatzen ditu bertsolari ibili ahal izateak berak modu jarraian... Batetik koltxoi ekonomiko bat (...) lan bat da, lan bat bezela funtzionatzen du, zenbateraino ez? Kotxea behar dezu, gasolina ordaindu behar dezu, ez dezu eduki behar inor zure zaintzapean e, ez dakit elbarria bazea gaizki, ez badezu ondo entzuten gaizki, gaixo bazare zaila da, huts egiten badezu saio dezentetan edo ba bono badago tradizio bat plazei erantzun

in behar zaiena, eta berdin zait haurdunaldiagatik, edo nekeagatik edo gaixotasun kroniko batengatik edo beste norbait zaindu behar badezu... ba hori ez dago kontenplatuta gure ofizioan. (Izaro, sorkuntza ogibide)

Elkarrizketatuei etorkizuna jarri diegu hizpide. Badira bertsoan “hiltzen naizen arte eta gero ere bai” (Pello, sorkuntza ez-ogibide) esaten dutenak; badira, sortzea eta bertsoagintza pixkanaka bereizten joango zaizkiola uste dutenak; edo bestelako ordutegi, oholta eta eremu batzuk sortzearekin amesten dutenak; baita, euren burua (gurasoen) zaintzan ikusten dutenak ere.

4. Ondorioak

Ikerketa hau kultur-sorkuntzaren ereduaz pentsatzeko hurbilpen bat izan da. Bertsozale Elkarteak gaitasun handia erakutsi du garai ezberdinetara moldatzeko, eta garrantzitsua da beste distantzia batetik, kasu honetan eremu akademikotik, azterketak eta ekarpenak egitea.

Bertsolaritza zaintzaren ikuspegitik aztertu nahi izan dugu eta bertsolarien bizitzaren errelatoetan, denboran zehar izan dituzten zailtasun eta estrategia ezberdinak azaldu ditugu. Ekarpene hauek hiru multzotan banatzea proposatzen dugu: 1) kultur-sorkuntzaren egoera orokorra, alegia, kulturagintzaren maila makroa eta maila horretan, kulturagintzaren profesionalizazioaren erronka; 2) kulturagintzak eta generoak duten harremana, eta kulturagileek zaintza lanak egiteko dituzten baliabideen afera; eta 3) bertsolaritzaren kasu konkretua.

Lehen zakuari dagokionez, azpimarratu nahi dugu kulturagileek Euskal Herriko markoan ez dutela lan-hitzarmenik, eta beraz, autonomia izan behar dutela jardun honetan modu erregularrean ibiltzeko. Kulturagintzaren finantzazio ereduak aldatzen joan da bertsolarien bizitzaren kontakizunetan zehar, eta elkarrizketatuen belaunaldiaren ondorengoek, badirudi, kultur-sorkuntzatik bizitzeko zailtasun gehiago izango dituztela. Elkarrizketetan, etorkizun beltza irudikatzen da kultur-sorkuntzatik bizibidea atera nahi dutenentzat, eta posizio hau gehiago defendatzen dute kultur-sorkuntza ogibide ez dutenek.

Bigarrenaren harira, aipatu genero desberdintasunak egiturazko faktorea direla bertsolaritza eta zaintza uztartzerakoan. Emakumeek zaintza lanen eta bertsolaritzaren desorekan bizirau(te)n dute, eta gizonezkoek, berriz, zaintza lanak eta bertsolariarenak uztartu beharra izan dute. Guraso bihurtzea emakumeen kasuan bertsolaritzaren kapital sinboliko eta irabazien beherakada izan da, gizonezkoen kasuan ez bezala.

Hirugarrenari dagokionez, agerian jarri nahi dugu bertsolaritza nahiz eta enpresa kultura baten bidez garatu (Lanku), bertsolariak ez dutela kultur industria baten parte diren sentsaziorik. Merkatuak baino, *plazak* agintzen duela diote. Bertsozale Elkartearen zentraltasuna eta autonomia dira honen arrazoi, bai eta bertsolaritzak berak dituen izaera kolektiboa eta egituraketa ere. Bertsolaritzaren kudeaketan enpresa bakarra egoteak ere zerikusia izan dezake honekin, enpresen lerratze eta lehiarik ez baitago. Gainera, bertsolariak Bertsozale Elkartearen euren proiektu gisa deskribatzen dute: ez da agente pribatu edo kanpoko.

Bertsolaritzaren diskurtsoa eta irudia asko aldatu da azken urteetan, eta Jone Miren Hernandezen (2011) aurreikuspenari guk ere usain hartzen diogu: bertsolaritza definizio berri baterantz doa eta, honetan, emakumeen ekarpena ezinbestekoa izango da. Ausartuko gara gehitzen, bertsolaritzaren definizioa oholtzako presentziatik bakarrik ez dela egingo.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Lan honek bide eman lezake bestelako kultur sorkuntza diziplinetan zer nolako eredu eta bizipenak egon diren aztertu eta konparatzeko. Gainera, bertsolariak euren bizitzetan izandako arazo konkretuak aztertu eta zergatiak zein erantzunak bilatzen hastea da ikerketa honek planteatzen duen erronka. “Zaindu kultura” leloak garrasi egiteko balio du, baina ez agian hainbeste entzuteko, eta zaintzaz ari garenean zertaz ari garen zehaztea, zein zaintzaren barruko puntuak finkatzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Bizitza kontakizunen teknikak norbanakoen kasuetan baino egiturari begiratzea helburu duela esan dugu, eta era berean, egiturek norbanakoen bizipenak behar dituzte euren norantza finkatzeko. Uste dugu kulturgintzaren arazoari politika kulturalen berrirakurketatik eman ahal diogula erantzuna. Gainera, kultura eta ekonomiaren arteko debatea ere zabaldu nahi du ikerketa honek. COVID-19aren testuinguruan, kulturaren beharrezkoa agerian gelditu da baina nago, eskarrietan eta analisi zehatzetan sakontzeak asko lagunduko ligukela egonezina eta indarra bideratzen. Pandemia medio ohartu gara ezer gutxi dela aurreikusgarria; eta horregatik da ikusezinen garaia, puntaren punta baino, burua urpean sartu eta izeberg-aren azpiari begiratzekoa.

6. Erreferentziak

Adam, B. (1999): Cuando el tiempo es dinero. Racionalidades de tiempo conflictivo y desafíos a la teoría y la práctica del trabajo”, *Sociología del trabajo. Nueva época*, 37, 5-39.

Amuriza, X. (1981): *Hitzaren kirol nazionala*. Bilbo: AEK.

Arneil, B. (2006) “Jus communities. Social Capital, Gender and Culture”, in B. O’Neill eta E. Gidengil, ed., *Gender and Social Capital*, Londres, Routledge, 15-43.

Artetxe, M. eta Labaka, A. (2019): *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen*, Bilbo: UEU.

Artetxe Sarasola M. (2020): *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak. Gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimazio prozesuak*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Bertaux, D. (2005): *Los relatos de vida: perspectiva etnosociológica*, Barcelona: Bellaterra.

Butler, J. (2007): *El género en disputa: el feminismo y la subversión de la identidad*. Barcelona: Paidós.

Biglia B., eta Bonet, J., (2012): *Análisis crítico del discurso con perspectiva feminista*, Consumo impartido en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación, UPV/EHU.

Carrasco, C. (2017): “La economía feminista. Un recorrido a través del concepto de reproducción”, *Revista vasca de economía*, 91, 53-77.

Castañeda Salgado, M. P. (et al.) (2019): *Otras formas de (des)aprender: investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad*. Bilbao: Hegoa.

Chamberlain, P. (2017): *The Feminist Fourth Wave Affective Temporality*, Basingstoke: Palgrave Macmillan.

Del Valle, T. (2000): “Introducción”, en Del Valle, T. (ed.), *Perspectivas feministas desde la antropología social*, Ariel, Barcelona, 9-24.

Esteban, M. L. (2019): “Begirada bat bertsolaritzari feminismitik”, in Artetxe M. eta Labaka A., *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen*, Bilbo: UEU, 301-310.

Federici, S. (2014 [2008]): *Caliban eta sorgina. Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa*. Donostia: Elkar, Eskafandra.

Garzia, J., Sarasua, J. eta Egaña, A. (2001): *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*. Donostia: Bertsozale Elkartea.

Garzia, J. (2012): *Bertsolaritza: euskarazko bat-bateko bertsogintzaren gaur egungo egoera, tradizioa eta etorkizuna*. Etxepare Euskal Institutua/Instituto Vasco Etxepare.

Geertz, C. (1992): *La interpretación de las culturas*. Barcelona: Gedisa

Haraway, D. (1995): *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinención de la naturaleza*, Valencia: Universitat de València.

Vich, V (2002): *El canibal es el Otro. Violencia y cultura en el Perú contemporáneo*. Lima: IEP Ediciones.

Harding, S. (1996): *Ciencia y feminismo*. Madrid: Morata.

Hernández, J. M. (2011): "Bertsolaritza, definizio berri baterantz", *Emakunde aldizkaria*, 81, 4-5.

—————, (2014): "Emakume bertsolariak: bertsotik bertsora, hanka puntetan" in Alvarez Uria, A.; Lasarte Leonet, G., *Gopurtza eta Generoa Euskal Kulturen eta literaturan*. Bilbo: UEU, 37-48.

—————, (2016): "Odolak badu generorik? Edo zergatik gorputz emeak ez diren bertsotarako bizitoki" in Esteban, M.L., eta Hernández J.M., *Etnografia feministak Euskal Herrian, XXI.mendera begira dagoen antropologia*, EHU-UEU.

Labaka, A. (2018): *2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko umorea aztergai, genero-ikuspegitik*, Ikerketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra, EHU.

Larrañaga, J. (2013): "Jolas sakona: Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI. mendeko agoran", Doktorego-tesia, EHU, Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila.

Legarreta Iza, M. (2008): "El tiempo donado en el ámbito doméstico: reflexiones para el análisis del trabajo doméstico y los cuidados". *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 26(2), 49-73 .

Legarreta Iza, M. (2017): "Notas sobre la crisis de cuidados: distribución social, moralización del tiempo y reciprocidad del tiempo donado en el ámbito doméstico-familiar", *Arbor*, 193(784), a381.

Molinier, P. eta Legarreta, M. (2016): "Subjetividad y materialidad del cuidado: ética, trabajo y proyecto político", *Papeles del CEIC*, 1, 1-14.

Nussbaum, M. (2010): *Sin fines de lucro: Por qué la democracia necesita de las humanidades*. Madrid: Katz.

Pérez Orozco, A. (2014): *Subversión feminista de la economía: aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Madrid: Traficantes de Sueños.

Retolaza, I. (2019): "Bertsolari emakumeak vs idazle emakumeak: kultur esparruak, kultur autoritateak eta genero-logikak", in Artetxe M. eta Labaka A., *Bertsolaritza feminismotik (bir)pentsatzen*, Bilbo: UEU, 313-342.

Sagastizabal Emilio-Yus, M. (2019): "La triple presencia. Un acercamiento a la participación sociopolítica desde una perspectiva feminista", *Política y Sociedad*, 56(3). 779-798.

Sagastizabal Emilio-Yus, M. (2020): *Hiruki gatazkatsua*, Zarautz: Susa.

Sarasua, J. (1999): "Bertsozale Elkarteak: tresna autoeratuak", *Euskonews & Media*, 56. Zbk (1999/11/26), Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Tronto, J. (2005): "Cuando la ciudadanía se cuida: una paradoja neoliberal del bien-estar y la desigualdad" *VVAA. SARE. ¿Hacia qué modelo de ciudadanía?*, Vitoria-Gasteiz: Emakunde-Emakumearen euskal erakundea, 231-253.

Williams, R. (1977): "Teoría cultural", *Marxismo y literatura*, 91-164

Zubiri, H., Aierdi, X. eta Retortillo, A. (2018): *Bertsolaritzaren azterketa soziologikoa, 2005-2018*, Bilbo: EHU.

7. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak eman nahi nizkioke Matxalen Legarreta Izari zaintzaz zaintzatik aritzeagatik. Eskerrak, baita, Mintzola Ahozko Lantegia eta UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrari, ikerketa lan honek 2019-20 ikasturtean euren ikerketa beka eskuratu baitzuen eta 2020ko jardunaldietan izan zen aurkeztua.

2020-21eko Eusko Jaurlaritzaren Doktoratu Aurreko Programako laguntza eskuratu nuen, eta ikerketa honetan jorratutako gaiei segida ematen ari naiz.